

GI-20 errepidea Donostia parean hiru gauetan itxiko da Bilbo noranzkoan portikoak eta seinaleztapen-banderolak berritzeko

Igandean, astelehenean eta asteartean, apirilak 7, 8 eta 9an.

Bidegi, GI-20 errepidean, Aritzeta, Añorga eta Ondarretako lotuneen parean dauden orientazio-seinaleztapeneko portikoak eta banderolak aldatzen ari da. Hori dela eta, egungo indikazioak kendu eta berriak jartzeko, errepidea itxita egongo da hiru gauetan Bilbo noranzkoan. Igandean, itxiera 23:30etik 04:30era izango da eta astelehenean eta asteartean 21:45etik 04:30era. Behobia noranzkoan zabalik egongo da.

Itxierek GI-20 eta AP-8 errepideen arteko loturari eragingo diote Aieteko tunel parean eta alternatiba gisa zirkulazioa 10. irteeratik desbideratuko da Donostia-Ondarreta-Añorgarantz eta Tolosa etorbidetik GI-20 errepidera eta AP-8ra berriz sartzeko. Lanak gauez egingo dira, ahalik eta gutxien eragiteko.



La GI-20 se cortará durante tres noches a la altura de Donostia-San Sebastián en sentido Bilbao para renovar los pórticos y las banderolas de señalización

El domingo, lunes y martes, 7, 8 y 9 de abril.

Bidegi está sustituyendo los pórticos y banderolas de señalización de orientación ubicadas en la carretera GI-20 a la altura de los enlaces de Aritzeta, Añorga y Ondarreta. Con tal motivo y para proceder a la retirada de las actuales indicaciones y colocar las nuevas, la carretera en sentido Bilbao permanecerá cerrada durante tres noches. El domingo, el cierre será de 23:30 a 04:30 horas y el lunes y martes de 21:45 a 04:30 horas. En sentido Behobia estará abierta.

Los cierres afectarán al enlace de la GI-20 con la AP-8 a la altura del túnel de Aiete. Como alternativa el tráfico se desviará por la salida 10 Donostia-San Sebastián - Ondarreta-Añorga y por la avenida de Tolosa volver a acceder a la GI-20 y a la AP-8. Los trabajos se ejecutarán en horario nocturno para minimizar las afecciones.